

Lehiaren Euskal Agintaritzaren iritziz, genero berdintasunerako gizarte klausulek ez dute mugarik sortzen lehian

Kontratazio publikoan genero klausulen aplikazioari eta horrek lehiarako dituen eraginei buruzko txostena onetsi du

Adierazten duenez “genero berdintasunerako irizpideak sartzearen gaineko onarpen orokorra zalantzarik gabea da”


Txostenak jasotzen duenez, “aurretiazko azterketa egin beharko da, aukeratutako irizpideak kontratatu nahi den prestazioarekin proportziozkoak izan daitezen”

BILBON, 2019ko maiatzaren 20 an / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC), kontratazio publikoan genero klausulen aplikazioari eta horrek lehiarako dituen eraginei buruzko txostena onetsi du eta, “genero berdintasunerako irizpideak sartzearen gaineko onarpen orokorra zalantzarik gabea da” esan du ondorio gisa.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren azken bileran onetsi zen txostenean biltzen denez, gizarte klausulak baimenduta egongo dira kontratazio publikoan baldin eta kontratuaren xedearekin erlazionatuta badaude eta horien xedea, hauetakoren bat denean, besteak beste: genero berdintasunerako planen garapena; emakumeen eta gizonen artean berdintasuna sustatzeko neurriak; emakumezkoen kontratazioa; laneko bizitza, pertsonala eta familiara uztartzea, etab. Eta bete beharreko prestazioari nolabait kalitate gehiago ematen diotenean.

Txostenak azaltzen duenez, “zuzenbidearekin bat ez datozenez, ez dira onargarriak izango kontratuaren xedearekin erlaziorik ez duten esleipen irizpideak, enpresen kaudimenari dagozkienak, hau da, kontratatzeke ahalmenari buruzkoak, ezta esleipenerako gainerako irizpideei dagokienez proportzioz kanpoko balorazioa dutenak eta, ondorioz, lizitazioa desitxuratzen dutenak, ere”.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren iritziz, genero ikuspegia jasotzen duten esleipen irizpideen ezarpenak ez du lehiaren muga efektiborik eragiten, ez baitu lizitazioan sartzeko hesirik ezartzen. “Hala ere, horrelako esleipen irizpideen puntuazio osoari emandako ponderazioa oso altua bada, hori hesia izan daiteke eta, ondorioz, “aurretiazko azterketa egin beharko da, aukeratutako irizpideak kontratatu nahi den prestazioarekin proportziozkoak izan daitezen”, azaltzen du txostenak.



Zenbait balio, genero berdintasuna besteak beste, sustatzeko gizarte klausulak sartzea onargarria izango da, hartutako neurri zehatza aipatutako gizarte helburuak lortzeko justifikatuta badago, pleguetan jasotzen den kontratazio publikoa bultzatzen duten helburu nagusiekin bateragarri eginez.

Amaitzeko, txostenak gogorarazten du ezartzen diren klausulek lizitazaile guztiek baldintza berdinekin sartzea ahalbidetu behar dutela, eta ezin izango dela lehiaren aurreko justifikaziorik gabeko oztoporik sortu.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta independentzia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoetarako dagokienez.